TEKNIKOA EZ DEN DOKUMENTUA

AURKIBIDEA

1.- INFORMAZIO-IKERLANAREN SARRERA 3
1.1.- ESPAINIAKO TRENBIDE PLANGINTZAREN OINARRIZKO LEGEGINTZA-ESPARRUA 3
1.2.- INTERES OROKORREKO TRENBIDE SAREA 3
1.3.- INFORMAZIO-IKERLANAK TRENBIDE AZPIEGITUREN PLANGINTZAN 3
1.4.- INFORMAZIO-IKERLANEN ONDORIOAK 6
2.- IRUÑERRIKO TRENBIDE SAREAREN INFORMAZIO-IKERLANA. 7
2.1.- JARDUKETAREN AURREKARIAK ETA JUSTIFIKAZIOA 7
2.2.- JARDUKETAREN KOKALEKUA ETA ERAGILEAK 7
2.3.- JARDUKETAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK 9
2.4.- AZTERTUTAKO AUKERAK 10
2.5.- INGURUMENA 15
2.6.- JARDUKETAREN DESKRIBAPENA 15
2.7.- BALIOESPEN EKONOMIKOA 18
2.8.- AUKEREN ALDERAKETA. AZTERKETA IRIZPIDEANIZTUNA 20
2.9.- ERRESERBA-ZERRENDA 20
2.10.- ONDORIOAK 21

ERANSKINAK

1. ERANSKINA - PLANOAK

AUKEREN OINPLANO OROKORRA
HAUTATUTAKO AUKERA. ESKEMA FUNTZIONALA
HAUTATUTAKO AUKERA. IBILBIDEAREN OINPLANOA
IRUÑEKO GELTOKI BERRIA

Dokumentu honen bidez, Trenbideen Sektoreari buruzko irailaren 29ko 38/2015 Legearen 5. artikulua betetzen da, honako hau ezartzen duena, hain zuzen ere: *informazio publikoko izapidea egiteko (trenbideko informazio-ikerlanei buruzkoa), helburuak betetzeko beharrezkoa den dokumentazio osoaz gain, teknikoa ez den dokumentu bat argitaratuko da, hizkuntza irisgarria eta irudiak erabiliz, herritar guztiek garatuko den jarduketaren berri izan dezaten eta, hala badagokio, alegazioak errazago aurkez ditzaten. Hizkuntza koofiziala duen autonomia-erkidego batean egiten bada jarduketa, teknikoa ez den dokumentua gaztelaniaz eta dagokion beste hizkuntza ofizialean argitaratuko da.*

1. OHAR GARRANTZITSUA:

Dokumentu honek sinplifikazioak ditu, errazago ulertzeko eta horiek ez edukiz gero beharko litzatekeen hedadura murrizteko. Kontzeptuak guztiz hartzeko, kasu bakoitzean aplikatu beharreko araudira edo informazio-ikerlanaren dokumentazio osora jo behar da.

2. OHAR GARRANTZITSUA:

Informazio publikoko izapidean eta entzunaldian aurkezten diren alegazioak informazio-ikerlanaren dokumentazio osoaren edukian oinarritu beharko dira, ez dokumentu honetan.

1.- INFORMAZIO-IKERLANAREN SARRERA

Atal honetan Espainiako interes orokorreko trenbide sarearen plangintzaren legegintza-esparrua eta Garraio, Mugikortasun eta Agenda Urbano Ministerioak bideratutako informazio-ikerlanen kontzeptua, arrazoiak eta edukia laburbiltzen dira.

1.1.- ESPAINIAKO TRENBIDE PLANGINTZAREN OINARRIZKO LEGEGINTZA-ESPARRUA

Estatuko trenbide azpiegituren plangintzaren **legegintza-esparrua** bi oinarrizko dokumentuek osatzen dute:

- Trenbideen Sektoreari buruzko irailaren 29ko 38/2015 Legea.
- Trenbideen Sektoreari buruzko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 30eko 2387/2004 Errege Dekretua. Nahiz eta Trenbideen Sektoreari buruzko irailaren 29ko 38/2015 Legea baino lehenagokoa izan, indarrean jarraitzen du aurrekoaren aurka egiten ez duen guztian.

1.2.- INTERES OROKORREKO TRENBIDE SAREA

Interes orokorreko trenbide sarea trenbide azpiegiturek, bidaiari-geltokiek eta salgaiak garraiatzeko terminalek osatzen dute, eta horiek funtsezkoak dira estatu osoan trenbideko garraio-sistema bateratua bermatzeko edo sistema hori batera administratzeko, behar bezala funtziona dezan (nazioarteko trafikoko ibilbideei lotutako jarduketak, autonomia-erkidegoak lotzen dituzten jarduketak, eta biztanleria- eta garraio-gune nagusietarako edo estatuko ekonomiarako edo defentsarako funtsezkoak diren instalazioetarako loturak eta sarbideak aurrera eramateko, besteak beste).

Espainiako interes orokorreko trenbide sareak hiru zabaleratako trenbideak ditu*. Trenbide-zabalera errailen barruko aurpegien arteko tartea da, hain zuzen ere:

ZABALERA	IZENA
1.435 mm	Zabalera estandarra
1.668 mm	Zabalera iberiarra
1.000 mm	Zabalera metrikoa

*Interes orokorreko trenbide sarearen zenbait zatitan linea berak bi zabalera desberdin ditu, estandarra eta iberiarra (hiru errailekin, biren ordez), eta horri zabalera mistoa esaten zaio.

Beste alde batetik, bidaiarien trafikorako tren-lineak, salgaien trafikorako lineak eta bien trafikorako lineak daude (bidaiariak eta salgaiak); azken horiek trafiko mistoko lineak dira. Tren-lineen ezaugarriak desberdinak dira jasan dezaketen trafikoaren arabera.

1.3.- INFORMAZIO-IKERLANAK TRENBIDE AZPIEGITUREN PLANGINTZAN

Trenbide azpiegituren plangintza ondoz ondoko faseetan egiten da. Hainbat garraio-mota hartzen dituzten estrategia multimodalak egiten hasten da, jarraian sektore-estrategiak eta bideragarritasuneko sektore-ikerlanak egiten dira eta, azkenik, informazio-ikerlanak egiten dira. Ikerlanak amaitzeko, jarduketa jakin batzuetarako irtenbide zehatzak onartzen dira.

Trenbideen Sektoreari buruzko irailaren 29ko 38/2015 Legearen 5. artikuluak ezartzen du **informazio-ikerlan bat noiz onartu behar den.**



Informazio-ikerlanak idazteko eta bideratzeko **erakunde eskuduna** Trenbide Plangintzako Zuzendariordetza Nagusia da, Garraio, Mugikortasun eta Agenda Urbano Ministerioaren Trenbide Sarearen Plangintzarako eta Ebaluaziorako Zuzendaritza Nagusiaren menpean dagoena. Onartzea ministerioaren titularraren eskumena da.

Informazio-ikerlanean, egin nahi den jarduketak izan ditzakeen hainbat irtenbide mahaigaineratzen dira, eta aukera horiek aztertzen dira egokientzat jotzen dena aukeratu ahal izateko, hainbat irizpide kontuan hartuta, hala nola ikuspuntu erabilgarria, ikuspuntu teknikoa, ingurumenaren ikuspuntua, ikuspuntu ekonomikoa eta abar. Hala ere, batzuetan ezin dira aukera desberdinak aztertu, eta informazio-ikerlanek diseinu bakarra izaten dute ardatz, arrazoiarekin.



Ingurumen-ebaluazioari dagokionez, Trenbideen Sektoreari buruzko irailaren 29ko 38/2015 Legeak ezartzen du informazio-ikerlanak mahaigaineratutako aukeren ingurumenaren gaineko eraginaren azterketa barne hartu behar duela, hala badagokio, eta oinarrizko dokumentua izango dela ingurumen-legerian aurreikusitako ingurumen-ebaluazioaren ondorioetarako. Hala, informazio-ikerlanak egitean eta bideratzean Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen eskakizunak ere kontuan izan behar dira.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7. artikuluak ikerlan horietarako bi ingurumen-ebaluazio mota ezartzen ditu, sinplifikatuta eta ohikoa. Ohikoena ez den arren, kasu batzuetan ingurumen-ebaluazioa ez da beharrezkoa legez. Prozedura bat edo beste egitea dagokion informazio-ikerlanean arrazoitu egiten da eta horren izapidean eragina du.

Teknikoa ez den dokumentu honetan aipatzen den informazio-ikerlana **ohiko ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioaren** xede da.

Informazio-ikerlanaren ingurumen-ebaluazio mota	*Hala badagokio, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak igorriko duen ebazpena*
Ohiko ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa	Ingurumenaren gaineko eraginaren aitorpena

Informazio-ikerlan baten edukia trenbideko sektore-legerian ezartzen da eta honako dokumentu hauetan antolatzen ohi da:

Dokumentua	*Edukia*
1. dokumentua	Memoria eta memoriaren eranskinak. Memoria jarduketaren alderdi nagusien laburpena da; eranskinek, ordea, egindako ikerlan guztiak garatzen dituzte, ezaugarri guztiak arrazoitu ahal izateko.
2. dokumentua	Planoak
3. dokumentua	Aurrekontua
4. dokumentua	Ingurumenaren gaineko eraginaren azterketa (dokumentu hau gehituko da ohiko ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa delako).

Hurrengo orrialdean, **ohiko ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioaren pean dagoen informazio-ikerlan baten izapidearen eskema** aurkezten da behin betiko onartu arte, hala badagokio, baita horren faseen azalpen laburra ere.

***OHIKO** INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN EBALUAZIOAREN PEAN DAUDEN INFORMAZIO-IKERLANEN IZAPIDEA*



· Informazio-ikerlanaren idazketa, dagokion ingurumenaren gaineko eraginaren azterketa barne hartzen duena.

(Urrats hau hautazkoa da)
Ingurumenaren gaineko eraginaren azterketa idatzi aurretik, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari *irismenaren dokumentu* bat eska diezaiokezu, non ministerio horrek adierazten duen prozesuaren une honetan dagokion ingurumenaren gaineko eraginaren azterketak zer eduki izan behar duen, diseinatzen ari den jarduketa eta hori zein ingurunetan dagoen kontuan hartuta.

· Informazio-ikerlanaren behin-behineko onarpena, dagokion ingurumenaren gaineko eraginaren azterketa barne hartzen duena.

· Informazio-ikerlanaren informazio publikoa eta entzunaldia, dagokion ingurumenaren gaineko eraginaren azterketa barne hartzen duena, **bai trenbideko sektorearen ikuspegitik bai ingurumenaren ikuspegitik.**

- Dagokion iragarpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuz hasiko da informazio publikoa. Edozein pertsona fisikok edo juridikok bidal dezake alegazio bat.
- Entzunaldia egiteko, ofizioak bidaltzen zaizkie trenbideko sektore-legerian eta ingurumeneko sektore-legerian ezarritako erakundeei (tokiko erakundeak, autonomia-erkidegoak -ingurumenaren arloan eskumenak dituen organo zehatza barne-, Garraio, Mugikortasun eta Agenda Urbano Ministerioaren aholkularitzako batzordea, Defentsa Ministerioa, kultura-ondarean eskumenak dituen organoa, eta abar).

· Informazio publikoko eta entzunaldiko espedientea idaztea. Jasotako alegazio guztiak biltzen ditu (sektoreko alderdiei eta ingurumeneko alderdiei buruzkoak), eta banan-banan aztertzen ditu, erantzun arrazoitua emanez.

- Informazio publikoaren eta entzunaldiaren ondorioz azaldutako konponbideetan aldaketa nabarmenak nagusitzen badira, dagokion dokumentazioa aldatu eta prozesua errepikatu egin behar da. Kasu horietan, informazio publiko eta entzunaldi osagarriak egin daitezke.
- Informazio publikoaren eta entzunaldiaren ondorioz aldaketa nabarmenik egiten ez bada, prozesuak aurrera jarraitzen du.

· Dokumentazio osoa (informazio-ikerlana, ingurumenaren gaineko eraginaren azterketa eta informazio publikoko eta entzunaldiko espedientea barne) Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministeriora bidaltzea, ohiko ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa hasteko eskaerarekin batera.
Bitartean, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak informazio gehigarria eska dezake.
Izapideekin jarraitu ahal izateko, ministerio horrek ingurumenaren gaineko eraginaren aitorpena egin behar du, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

· Informazio-ikerlanaren behin betiko onarpena eta dagokion ebazpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Garraio, Mugikortasun eta Agenda Urbano Ministerioaren eskumenekoa den plangintzako fase horren ondoren, hala badagokio informazio-ikerlana behin betiko onarpenarekin amaitu egiten dena, onartutako aukeraren **oinarrizko eta eraikitzeko proiektua idatziko** da, dagozkion **lanak** gauzatuko dira eta, azkenik, trenbide azpiegitura abian jarri eta ondoren **administratu** egingo da. Fase horiek trenbide azpiegituraren administratzailearen eskumenekoak dira (interes orokorreko trenbide sare gehienean ADIF edo ADIF-Alta Velocidad da, kasuaren arabera), nahiz eta beste eragile batzuek ere parte hartzen duten, hala nola Trenbide Segurtasuneko Estatuko Agentziak edo Garraio, Mugikortasun eta Agenda Urbano Ministerioak berak.



1.4.- INFORMAZIO-IKERLANEN ONDORIOAK

Informazio-ikerlan baten informazio publikoak eta behin betiko onarpenak ondorio batzuk dituzte. Hona hemen laburtuta:

Mugarria	*Ondorioak*	
Informazio publikoa	Lurralde- edo hirigintza-antolamenduaren arloan eskumena duen administrazioak, informazio publikoaren xede diren tren-ibilbideek eta trenbide-jarduketek eragindako eskualdeetan, lurzoruaren sailkapen eta kalifikazio berrien onarpena eta onartutakoen ondorioak eten egin behar ditu, baita hirigintzako baimen eta lizentzia berrien esleipena eten ere, informazio-ikerlana onartu arte. Gehienez ere urtebeteko epea izango du, informazio publikoaren iragarpena argitaratzeko datatik hasita, eta 6 hilabetez luza daiteke.	
Informazio-ikerlanaren behin betiko onarpena	Trenbide plangintzan	Jarduketaren hurrengo faseetan garatu beharreko konponbidea zehazten da, hau da, trenbide azpiegituraren administratzaileak idatzi beharreko ondorengo eraikitzeko proiektuek, kasuaren arabera, informazio-ikerlanean behin betiko onartutako konponbidea garatu behar dute eta horretara egokitu behar dira.
		Etorkizuneko sarearen linea edo tartea, bidaiariak garraiatzeko geltokia edo salgaiak garraiatzeko terminala interes orokorreko trenbide sarean sartuko da ondorio guztietarako.
	Ingurumenekoak	Jarduketarako ingurumen-baimena dago.
	Hirigintzakoak	Etorkizuneko trenbide azpiegiturak hartuko dituen lurrak erreserbatuta daude horretarako (erreserba-zerrenda).
		Trenbidearen inguruko lurren jabetzari trenbideko sektore-legeriak ezarritako mugak aplikatuko zaizkio (jabari publikoko eta babeseko eremuak eta eraikuntzaren mugako lerroa).
		Hirigintza-plangintzako tresnek etorkizuneko azpiegitura kontuan hartu beharko dute, eta ezin izango dira lurralde- eta hirigintza-antolamendua aldatzeko, berrikusteko, garatzeko edo gauzatzeko tresnak onartu, behin betiko onartutako informazio-ikerlan batean ezarritakoa urratzen badute.
	Informazio-ikerlan bat behin betiko onartzen denetik 10 urte igaro ondoren dagozkion lanak hasi ez badira, aurrekoak eragina izateari utziko dio.	
	ARGITZEKO OHARRA: *Informazio-ikerlan baten behin betiko onarpenak ez du desjabetze ondoriorik.* *Informazio-ikerlanean sartutako ondasunen eta eskubideen balorazioa aldez aurreko balorazio balioetsia besterik ez da.* *Ondasunen eta eskubideen gaineko edozein eragin desjabetzeko espedientea hasten den unean ebatziko da, azkenean proposatzen den aukera zehaztasun handiagoz garatzen duen proiektuaren fasean. Trenbide azpiegituraren administratzaileak izango du horren ardura. Fase horretan, ukitutako ondasunen eta eskubideen beste balorazio bat egingo da, dagozkion izapideekin batera.*	

2.- IRUÑERRIKO TRENBIDE SAREAREN INFORMAZIO-IKERLANA.

2.1.- JARDUKETAREN AURREKARIAK ETA JUSTIFIKAZIOA

Informazio-ikerlan honen xede diren lanak “Kantauri-Mediterraneo korridorea” izenekoan egiten ari diren jarduketen barruan sartzen dira.

Beste alde batetik, Zaragoza – Iruña – Bilbo ibilbidea Europaz Gaindiko Garraio Sarearen (Trans-European Transport Networks, TEN-T gisa laburtuta) Korridore Atlantikoaren parte da. Lehentasunezko garraio sareen multzo planifikatu bat da sare hori, Europar Batasun osoan pertsonen eta merkantzien komunikazioa errazteko helburua duena.

1. irudia - Europaz Gaindiko Garraio Sarearen (TEN-T sarearen) Korridore Atlantikoaren eskema

Zehazki, ikerlanaren xede den tartea, 22 kilometro inguruko luzera duena, Arrizabalaga eta Zuasti udalerrien artean dago, Iruñerriaren barruan eta Iruñetik hurbil.

Hegoaldean, Castejón de Ebro eta Arrizabalaga artean dagoeneko eraikitzen ari diren tarteei jarraipena ematen die. Horiek korridore berria osatuko dute, zabalera estandarreko bide bikoitzean (1.435 mm.), bidaiarien eta merkantzien trafiko mistorako.

Iparraldean, “*Kantauri-Mediterraneo trenbide korridorearen proiektuaren informazio-ikerlana. Tartea: Iruña-Altsasu*” tartearekin lotu egingo da, Garraio, Mugikortasun eta Agenda Urbano Ministerioak abian jarri berri duena. Aldi berean, Euskadiko trenbide sare berriarekin (“Euskal Y” sarearekin) lotuko da.

Beraz, ikerlan honen helburua da ibilbidearen aukerak aztertzea, bai Zaragoza-Iruña-Euskadiko abiadura handiko korridore berrirako, Iruñerritik igarotzean, bai zabalera iberiarrean dagoen linea birmoldatzeko ere, egungo trenbidearen bihurgunea Iruñerritik igarotzean ordezkatuz, trenbide sareak Iruñeko hirigunearekin eta hurbil dauden gainerako hiriguneekin duen lotura konponduz, eta Landabengo industrialdearekin trenbideko lotura gehituz.

2.2.- JARDUKETAREN KOKALEKUA ETA ERAGILEAK

Ikerlanaren xede den tartea Iruñerriatik doa oso-osorik, Tebas-Muru Artederretako, Beriaingo, Galarko, Zizurko, Iruñeko, Barañaingo, Zizur Nagusiko, Oltza Zendeako eta Itzako udalerrietan barrena. Iruñeaz gain, inguruko udalerri nagusiak honako hauek dira: Arrizabalaga, Beriain, Getze, Ezkirotz, Barbatain, Zizur Txikia, Iruña, Barañain, Arazuri, Ororbia, Zuasti.

Arrizabalaga eta Arazuri artean dagoen eskualdeak, Taxoareko eta Erreniegako mendilerroen artean, orografia izurtua du, orokorrean, eta lurraren malda naturalak handiak dira; izan ere, batzuetan % 15-20koak baino handiagokoak izaten dira; tarteka, malkartsua izaten da sakan edo tontor isolatuak, hala nola Alto del Monte (550 m), Beriaingo udalerriaren inguruan, edo Monte de Mendía, Arazuriko udalerrian, dituzten bidegurutzeetan. Arazuri eta Zuasti artean, orografia askoz lauagoa da, Arga ibaiaren haranari lotuta.

Eskualde horretatik igarotzen diren garraiorako azpiegitura nagusiak A-15 autobiari dagozkionak dira; lurraldeko ardatz antolatzailea da iparralde-hegoalde noranzkoan. Horrez gain, autonomia-erkidegoko errepideen bigarren mailako sarea dago, NA-6000, NA-6001, NA-6007, NA-6008, NA-6009, NA-6009 eta NA-700 errepideek osatutakoa, baita tokiko beste batzuk ere. Iruñea inguruan Arostegi etorbidearen ardatza ere nabarmentzen da, A-12 autobiaren luzapena A-15 autobiaren zeharkako noranzkoan, hain zuzen ere.

Halaber, eskualdetik igarotzen da Altsasu-Castejón egungo trenbidea (ADIF erakundearen sare konbentzionaleko 710 linea), iparralde-hegoalde noranzkoari begira dagoen ibilbide bati jarraituz.

Noaingo aireportua Iruñetik 4 kilometro hegoaldera dago, Galarko udalerrian eta Ezkirotz eta Noain udalerrietatik hurbil.

Azpiegitura hidraulikoei dagokienez, Nafarroako Ubidea da azpimarratzekoa, tartearen hegoaldetik doana, Tebas eta Arrizabalaga udalerrietatik gertu. Horretako tarte bat sifoian dago (lurperatuta).

2. irudia - Informazio-ikerlanaren esparrua

Zeharkatutako eskualdean zehar, industria-jarduerako hainbat gune daude, hala nola Meseta de Salinas-Gezaurre industrialdea, Getze ondoan, Comarca II industrialdea, Ezkirotz udalerritik gertu, Noaingo tren zerbitzu logistikoen terminala, horiek guztiak

Galarko udalerrian, Landaben industrialdea, Iruñean, Arazuriko araztegia edo Ororbia industrialdea.

Hori guztia ingurumenaren aldetik balio handia duten inguru eta paisaia naturalekin nahasten da; esate baterako, Arga, Elortz eta Txulapain ibaien haranekin lotutakoak, ibaiertzeko landaredi hostotsuarekin, edo mendixka edo mendi isolatuekin lotutakoak, hala nola Monte de Mendía. Izan ere, zeharkatutako udalerrietako zenbait eraikinaren estetika arkitektoniko zainduarekin batera, gizakiak eragindako lurraldea eta ingurua oso era interesgarrian batzen dira.

3. irudia - Iruñeko eta Zizurreko panoramika, A-15 autobiaren ibilbidearen inguruekin.

Honen xede den 710 linearen gaur egungo trenen trafikoa astean 245 zirkulazio ingurukoa da Iruña eta Castejón udalerrien artean, eta 165ekoa Iruña eta Altasu artean. Trafiko-motaren araberako banaketari dagokionez, % 70/30 banaketa dago bidaiari/merkantzia trenetarako, hurrenez hurren, Iruñeko hegoaldean, eta % 63/37 banaketa iparraldeko tartean.

2.3.- JARDUKETAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK

Azaldutako jarduketen artean hainbat bide zabaleratako zenbait linea eraikitzea sartzen denez, horien ezaugarriak aldatu egiten dira batetik bestera. Hona hemen oinarrizko ezaugarri nagusiak:

Trenbidearen zabalera:

- Abiadura handiko linea berrirako, zabalera estandarreko (1.435 mm) ustiapenaren azken agertokia proposatzen da.
- Lehendik dagoen linearen saihesbideko tarteetan, trenak zabalera iberiarrean bakarrik zirkulatzea aurreikusten denean, trenbide-sistema bat ezarriko da zabalera horretarako.
- Trafikoek bi zabaleretan zirkulatzea proposatzen den tarteetan, zabalera mistoko trenbide-sistema bat ezartzea aurreikusten da (1.435 mm / 1.668 mm).

Iruñeko geltoki berriaren lotzeko adarretan eta bazterbideetan, instalatu beharreko trenbidearen zabalera bat etorriko da lotzen diren trenbideekin.

Trafiko-mota:

Aurreikusitako trafiko-mota mistoa da, bidaiariak eta merkantziak.

Galiboa:

- Zabalera estandarreko (1.435 mm) abiadura handiko linea berriaren tarteetarako, GC motako galibo uniformea aurreikusten da.
- Lehendik dagoen linearen saihesbideko tarteetarako, trenak zabalera iberiarrean (1.668 mm.) bakarrik zirkulatzea aurreikusten denean, GEC16 motako galibo uniformea ezarriko da.
- Lehendik dagoen linearen saihesbideko tarteetarako, trafikoek bi zabaleretan (1.435 mm. / 1.668 mm.) aldi berean zirkulatzea aurreikusten denean, GEC eta GEC16 motako galibo uniformeen artean murriztaileena dena hartuko da.

- Lehendik dagoen linearen zabalera mistoko sistema duten berritutako tarteetarako, lehendik dagoen galiboa mantenduko da.

Ardatzeko gehienezko karga:

- Ardatzeko gehienezko karga 22,5 tonakoa izango da kasu guztietan.

Ibilbidea:

Kontuan hartu diren ibilbidearen parametroak honako hauek dira:

- Zabalera estandarreko lineetarako (1.435 mm):
  - Zirkulatzeko gehienezko abiadura 230 eta 300 kilometro ordukoa.
  - Gutxieneko erradioa: 2.300 m. (Iruñeko geltokiaren inguruan izan ezik).
  - Gehienezko luzetarako malda: ‰ 15 trafiko mistorako eta ‰ 25 bidaiarien trafikorako bakarrik.
  - Trenbide bikoitzaren ardatzen arteko tartea: 4,70 m
- Zabalera iberiarreko (1.668 mm.) edo mistoko (1.435/1.668 mm.) lineetarako:
  - Zirkulatzeko gehienezko abiadura 140 eta 200 kilometro ordukoa.
  - Gutxieneko erradioa: 500 m.
  - Gehienezko luzetarako malda: ‰ 15
  - Trenbide bikoitzaren ardatzen arteko tartea: 4,00 m

Elektrifikazioa:

- ZABALERA ESTANDARREKO TARTEAK: CA-350 motako katenaria, 2x25 KVA-ko korronte alternoko elikadura-sistemarekin, gehienez 350 kilometro orduko abiaduretarako egokia.
- ZABALERA IBERIARREKO EDO MISTOKO TARTEAK: CA-200H/3kV motako katenaria, 3.000 V-ko korronte zuzeneko sistemak elikatuta, baina 25 kV-ko korronte alternoko elikadurara transformatzeko aukera ematen duten osagaiek osatuta (katenaria hibridoa), eta gehienez 200 kilometro orduko abiaduretarako egokia.
- EGUNGO LINEAREN BIRGAITUTAKO TARTEAK: CA-160H/3kV motako katenaria, 3.000 V-ko korronte zuzeneko sistemak elikatuta, baina 25 kV-ko korronte alternoko elikadurara transformatzeko aukera ematen duten osagaiek osatuta (katenaria hibridoa), eta gehienez 160 kilometro orduko abiaduretarako egokia.

Seinaleak:

Castejón eta Iruñerria arteko korridore berrian, zabalera estandarrean, sistema nagusi gisa 2. mailako (350 kilometro ordu arte) eta 1. mailako (300 kilometro ordu arte) ERTMS teknologian oinarritutako sistema eta, bigarren mailako sistema gisa, seinaleztapenaren eta balaztatze automatikorako iragarpen digital (200 kilometro ordu arte) teknologia ezartzea aurreikusten da. Katigamendu elektronikoa izango du Iruñeko geltoki berrian, eta blokeo automatiko banalizatua TKZ kontrola duen ibilbidean.

Egungo linearen saihesbideetan, adarretan edo zabalera iberiarreko edo mistoko tarteetan, seinaleztapenaren eta balaztatze automatikorako iragarpen digital (200 kilometro ordu arte) teknologian oinarritutako sistema konbentzionala ezartzea aurreikusten da. Katigamendu elektronikoa izango du Iruñeko geltoki berrian, eta blokeo automatikoa trenbide bakarrean TKZ kontrola duen ibilbidean.

2.4.- AZTERTUTAKO AUKERAK

Ikerlanaren lehenengo fasean, 1:5.000 eskalan eginda, ibilbidearen bost aukera aztertu ziren, 1 aukera, 2A aukera, 2B aukera, 3A aukera eta 3C aukera izenekoak. Horietako lehenengoan, 1 aukeran, Arrizabalaga eta Iruña arteko hasierako lehenengo tartean lehendik dagoen linea bikoiztea proposatu zen, trenbide batean zabalera estandarra eta beste trenbidean zabalera mistoa jarriz. Beste aukeretan, egungo linearen saihesbideak izan zitezkeen ibilbideak proposatu ziren; 2 aukeran, Ezkirotz udalerriaren ingurutik igaroko zen; 3 aukeran, ordea, Zizur udalerriaren ingurutik igaroko zen. Tartearen bigarren zatian, Iruña eta Zuasti artean, bi zabalerak partekatutako plataforma bakarra (2A eta 3A aukerak) edo bi plataforma paralelo, bata

zabalera estandarreko trenbide bikoitzekoa eta bestea zabalera iberiarreko trenbide bakarrekoa (2B eta 3B aukerak), zituzten konponbideak proposatu ziren.

Azterketa irizpideaniztunaren emaitzaren ondorioz, arrazoi funtzionalengatik 1 aukera alde batera uztea erabaki zen. Beste aukerak hurrengo faserako gorde ziren.

Informazio-ikerlanaren bigarren zatian, 1:2.000 eskalan eginda, sei (6) aukera proposatuko dira, honako izen hauekin:

- 2A AUKERA
- 2B AUKERA
- 2C AUKERA
- 3A AUKERA
- 3B AUKERA
- 3C AUKERA



4. irudia - Aukeren oinplano orokorraren planoa

2 eta 3 AUKEREN arteko aldeak jarduketaren lehen zatian ibilbideari konponbidea aurkitzeko moduari dagozkio. Tartea Arrizabalaga eta Iruña artean dago eta 14 kilometro inguruko luzera du.

Bi kasuetan, egungo linearekin alderatuta saihesbideko konponbideak proposatzen dira ibilbiderako, baina 2 AUKERARAKO Beriain, Getze eta Ezkirotz udalerrien ingurutik doan ibilbidea proposatzen da, Noaingo aireportutik oso gertu; 3 AUKERARAKO, berriz, udalerri nagusietatik urrunago dagoen korridore berri bat nahi da, Getze eta Ezkirotz mendebaldetik inguratuz, Zizur Txikitik sartuz Iruñeko geltoki berriraino iristeko.

Bi aukerak bat datoz Arostegi etorbidearen ondoan kokatuta dagoen Iruñeko geltoki berriari dagokionez; ibilbide guztien igarotzeko puntu finkoa da beraz. AP-15 autobidearekiko paralelo dagoen lerrokadura jarraituko dute, eta Iruñeko Hirigintza Plangintzako tresnetan aurreikusitako tokian egongo da (UGEPS, 2010).

Trenbide bakarreko Arrizabalaga eta Ezkirotz arteko linea iraunaraziko da tarte ertaineko eta merkantzietako zerbitzuen zirkulaziorako, baina berrituko da zabalera mistoko sistemarekin bi zabaleretako (iberiarra eta estandarra) trenak igaro daitezen. Ezkirotz udalerritik aurrera saihesbidea proposatzen da ere bai, egungo ibilbidearekin alderatuta, zabalera estandarreko korridore berriarekin batera doana eta Iruñeko “bihurgunea” kentzeko aukera ematen duena.

Jarduketaren bigarren zatian, Iruña eta Zuasti udalerrien artean eta 7,5 kilometro inguruko luzera duena, ingurumeneko eta hidrologiako baldintzen ondorioz ibilbiderako konponbide bat baino ez da proposatzen, oro har. Aldaketa funtzional batzuk ditu, 2A/2B/2C eta 3A/3B/3C izeneko aukerak eragiten dituztenak kasu bakoitzean ezarri beharreko plataforma-kopuruaren eta proposatutako trenbideen zabaleraren arabera:

- “A” motako eta “C” motako konponbideen kasuan, bi trenbidetarako plataforma partekatu bakarra proposatzen da, non zabalera estandarrerako (1.435 mm.) trenbide bat eta zabalera iberiarrerako (1.668 mm.) beste trenbide bat jarriko diren “A” motako konponbidean, eta zabalera estandarrerako (1.435 mm.) trenbide bat eta zabalera mistorako (1.435/1.668 mm.) beste trenbide bat jarriko diren “C” motako konponbidean.
- “B” motako konponbideetarako, paraleloan doazen bi plataforma proposatzen dira. Plataforma horietako batean, zabalera estandarreko (1.435 mm.) trenbide bikoitz bat jarriko da eta, bestean, zabalera iberiarreko (1.668 mm.) trenbide bakarra.

Aukerak sortzeko jarraitu den arrazoibidea, batetik, alboko tarteetako trenbide-korridoreek (Castejón-Iruñerria hegoaldetik eta Iruña-Altsasu iparraldetik) iraunarazteko duten aukeran eta, bestetik, trenbideak eraikitzeko eta abian jartzeko malgutasunean oinarritu egin da, eta eraginkortasuneko irizpideak kontuan hartu dira.

Jarraian, hautatutako aukera (3B AUKERA) osatzen duten lineen edo trenbideen eskema funtzionala erakusten da.



5. irudia. 3B aukerako trenbideen eskema funtzionala

2.5.- INGURUMENA

Abenduaren 5eko 9/2018 Legeak aldatzen duen Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen I. eranskinean jasotzen dira ingurumenaren gaineko ebaluazioaren menpean dauden jarduerak, ohiko prozeduran. Jarduera horien artean bide luzeko trafikorako tren-lineak eraikitzea dago, eta horri dagozkio ikerlan honetan proposatutako jarduketak.

Informazio-ikerlan honen xede den tarteak 22 kilometroko luzera du guztira, gutxi gorabehera; beraz, informazio-ikerlaneko jarduketek, indarrean dagoen ingurumenari buruzko legeriaren arabera, ingurumeneko izapide arruntak beharko dituzte.

Horren ondorioz, ingurumenaren gaineko eraginaren azterketa idatzi da, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 35. artikuluan xedatutakoa betez. Horren arabera, sustatzaileak egiten duen ingurumenaren gaineko eraginaren azterketan proposatutako aukera guztietarako aurreikusitako jarduketa guztien ingurumenaren gaineko eraginak identifikatu, aztertu eta baloratuko dira. Horiek guztiak honako taula honetan jaso dira.

	"2" MOTAKO AUKERAK (2A-2B-2C)				"3" MOTAKO AUKERAK (3A-3B-3C)			
	Z	ERAIKUNTZAREN FASEA	Z	USTIAPENAREN FASEA	Z	ERAIKUNTZAREN FASEA	Z	USTIAPENAREN FASEA
Airearen kalitatearen/klima-aldaketaren gaineko eraginak	-	BATERAGARRIA	+	BATERAGARRIA	-	BATERAGARRIA	+	BATERAGARRIA
Soinu-kalitatearen/bibrazioen gaineko eraginak	-	BATERAGARRIA	-	GOGORRA	-	BATERAGARRIA	-	NEURRIZKOA
Argiaren gaineko eragina	-	BATERAGARRIA	-	BATERAGARRIA	-	BATERAGARRIA	-	BATERAGARRIA
Geologiaren/geomorfologiaren gaineko eraginak	-	NEURRIZKOA	-	BATERAGARRIA	-	NEURRIZKOA	-	BATERAGARRIA
Hidrogeologiaren gaineko eraginak	-	BATERAGARRIA	-	BATERAGARRIA	-	BATERAGARRIA	-	BATERAGARRIA
Lurzoruen gaineko eraginak	-	BATERAGARRIA	-	BATERAGARRIA	-	BATERAGARRIA	-	BATERAGARRIA
Hidrologiaren/uholde-arriskuaren gaineko eraginak	-	NEURRIZKOA	-	BATERAGARRIA	-	NEURRIZKOA	-	BATERAGARRIA
Landarediaren gaineko eraginak	-	NEURRIZKOA	-	BATERAGARRIA	-	NEURRIZKOA	-	BATERAGARRIA
Faunaren gaineko eraginak	-	BATERAGARRIA	-	NEURRIZKOA	-	BATERAGARRIA	-	NEURRIZKOA
Paisaiaren gaineko eraginak	-	NEURRIZKOA	-	NEURRIZKOA	-	NEURRIZKOA	-	NEURRIZKOA
Babestutako guneen gaineko eraginak	-	BATERAGARRIA	-	BATERAGARRIA	-	BATERAGARRIA	-	BATERAGARRIA
Abelbideen gaineko eraginak	-	BATERAGARRIA	-	BATERAGARRIA	-	BATERAGARRIA	-	BATERAGARRIA
Biztanleen erosotasunaren gaineko eraginak	-	BATERAGARRIA	*	BATERAGARRIA	-	BATERAGARRIA	*	BATERAGARRIA
Lurzoruaren erabileren gaineko eraginak	-	GOGORRA	-	NEURRIZKOA	-	NEURRIZKOA	-	NEURRIZKOA
Tokiko ekonomiaren ekoizpenaren gaineko eraginak	+	BATERAGARRIA	+	BATERAGARRIA	+	BATERAGARRIA	+	BATERAGARRIA
Ondare kulturalaren gaineko eraginak	-	BATERAGARRIA	-	BATERAGARRIA	-	BATERAGARRIA	-	BATERAGARRIA
Hirigintza-plangintzaren gaineko eraginak	*	BATERAGARRIA	-	BATERAGARRIA	*	BATERAGARRIA	-	BATERAGARRIA
Hondakinen sorkuntzatik eratorritako eraginak	-	NEURRIZKOA	-	BATERAGARRIA	-	NEURRIZKOA	-	BATERAGARRIA
Istripu larrien eta hondamendien eraginak	-	NEURRIZKOA	-	NEURRIZKOA	-	NEURRIZKOA	-	NEURRIZKOA

Z zutabea: Zeinua. +: Positiboa. -: Negatiboa. *: Neutroa.

1. taula. Ingurumenaren gaineko eraginaren azterketako eraginen laburpena

Aztertutako eremuan ez dago Red Natura 2000 sarearen parte den babestutako gunerik, hau da, ez dago hegaztientzako babes bereziko eremurik ezta kontserbazio bereziko eremurik ere. Beraz, esan beharra dago proiektuak ez duela Red Natura 2000 sarearen gaineko eraginik izango.

Ingurumenaren gaineko eraginaren azterketak, halaber, prebentziozko, zuzenketako eta konpentsazioko neurriei buruzko kapitulu zehatza ere jasotzen du, eraginak saihestu eta murriztuko direla ziurtatzeko, baita ingurumena zaintzeko programa zehatza ere. Horren helburua aurreikusitako babesteko eta zuzentzeko neurriak behar bezala betetzen direla bermatzea da, baita proposatutako neurriei edo aurreikusi gabeko ingurumenaren gaineko ondorioen agerpenari dagokionez disfuntzioak saihestea edo zuzentzea ere.

2.6.- JARDUKETAREN DESKRIBAPENA

Aurretik aipatu denez, tartearen luzera 22 kilometrokoa da gutxi gorabehera. Proposatutako aukerek hainbat jarduketa egitea eragingo dute, horien artean linea nagusien, lehendik dauden trenbide azpiegiturekin lotzeko bigarren mailako adarren eta egungo lineako tarteen gaineko jarduketak, baita Iruñean beste tren-geltoki bat egitea ere. Honako hauek dira aipatutako jarduerak, hain zuzen ere:

– Arrizabalagako bidegurutzearen lotunea, egungo linearen eta zabalera estandarreko korridore berriaren arteko loturak konpontzen dituena. 1,3 km-ko

luzera duen Iruña-Castejón loturako adarrak eta 1,4 km-ko luzera duen Castejón-Iruña loturako adarrak osatzen dute.

- Arrizabalagako lotunearen eta Iruñeko geltoki berriaren arteko linea berritzea zabalera mistoko trenbidea egiteko, 9,5 kilometro inguruko luzera duen tartean.
- Saihesbideko tartea, trenbide bikoitzerako plataformarekin, zabalera estandarreko linea berrirako, 14 kilometro inguruko luzera duen Arrizabalaga eta Iruña arteko tartean.
- 7,5 km-ko luzera duen saihesbideko tartea, trenbide bikoitzerako plataformarekin, zabalera estandarreko linea berrirako Iruña eta Zuasti arteko tartean, 2B eta 3B aukeren kasuan; horietan, gainera, beste plataforma paralelo bat eraikiko da, trenbide bakarrerako egokia, zabalera iberiarreko linearen saihesbiderako.
- 7,5 km-ko luzera duen saihesbideko tartea, trenbide bikoitz partekaturako plataformarekin, zabalera estandarreko linea berrirako, eta Iruña eta Zuasti arteko tartean lehendik dagoen linea, 2A, 2C, 3A eta 3C aukeren kasuan. 2A eta 3A aukeretan trenbide bat jarriko da zabalera bakoitzerako; 2C eta 3C aukeretan, berriz, zabalera estandarreko trenbide bat eta zabalera mistoko beste bat jarriko dira.
- Iruñeko geltoki berria. Bai trenbide-lautada eta zabalera ezberdinetarako nasak bai bidaiarientzako eraikin berria egitea eragingo du.

Egiturak

Linea guztien plataformak egiteko, zenbait tarte egituran (biaduktua) edo tunelean jarri behar dira, ibilbidearen hainbat puntutan dauden bidegurutzeak, desnibel orografikoak edo baldintza teknikoak edo ingurumenekoak gainditzeko.

Ibilbidearen aukeretarako proposatutako tren-biaduktuek 75 eta 1.140 metro bitarteko luzerak dituzte.

Tunelei dagokienez, denek luzera motzak dituzte, 170 eta 782 metro bitartekoak, eta trenbide bikoitzerako sekzio egokia dute, Ezkirozko tunelaren kasuan izan ezik, trenbide hirukoitzekoa baita.

Hurrengo taulan, aukera bakoitzerako biaduktuen eta tunelen kopurua laburtzen da.

AUK.	BIADUKTUAK				TUNEL ARTIFIZIALAK				MEATEGIKO TUNELAK			
	2 TRENBIDE		TRENBIDE 1		2 TRENBIDE		TRENBIDE 1		2 TRENBIDE		TRENBIDE 1	
	Ale.	Luzera (m)	Ale.	Luzera (m)	Ale.	Luzera (m)	Ale.	Luzera (m)	Ale.	Luzera (m)	Ale.	Luzera (m)
2A	10	3.125	0	0	3	1.357	0	0	0	0	1	265
2B	10	3.125	3	1.860	3	1.357	0	0	0	0	1	265
2C	10	3.125	0	0	3	1.357	0	0	0	0	1	265
3A	10	3.860	0	0	1	740	0	0	0	0	1	265
3B	10	3.860	3	1.860	1	740	0	0	0	0	1	265
3C	10	3.860	0	0	1	740	0	0	0	0	1	265

2. taula. Aukeretarako biaduktuen eta tunelen laburpena

Drainatzea

Zeharkako eta luzetarako drainatzerako obrak diseinatu dira ibarbideekin dauden gurutzaketak konpontzeko eta ibilbideek zeharkatzen dituzten arroetako isurketa-urari jarraipena emateko.

Zeharkako drainatzearen kasuan, hormigoi armatuzko marko aurrefabrikatuko fabrika-obrak egingo dira, egindako hustubideen emarien kalkuluen araberako neurriekin.

Jarraian, drainatzeko obren motak eta horien kopurua biltzen dituen laburpen-taula dago, aukera bakoitzerako:

MOTA	2A AUKERA	2B AUKERA	2C AUKERA	3A AUKERA	3B AUKERA	3C AUKERA
2x2	18	19	19	28	29	29
3x2	4	3	3	2	2	2
2-3x2	1	1	1	-	-	-
3x3	3	2	2	2	2	2
3-3x3	1	3	3	1	1	1
5x3	3	3	3	2	2	2
2-6x3	1	1	1	1	1	1
4-2,5x1,6	1	1	1	1	1	1
GUZTIRA	32	33	33	37	38	38

3. taula. Aukeren zeharkako drainatzeko obren laburpena

Luzetarako drainatzeari dagokionez, arekak, zorrotenak eta beste osagai batzuk jarriz konponduko da.

Trenbide-gainegitura

Proposatutako trenbide-gainegitura konbentzionala izango da, balastoarekin, jarduketaren xede diren trenbide guztietarako. Giltzadurarik gabeko sistemaren bidez

muntatuko da barra luze soldatua osatzeko, eta bloke bakarreko hormigoizko trabesak eta UIC 60 E1 motako erraila izango ditu.

Elektrifikazioa

CA-350 motako katenaria jarriko da zabalera estandarreko linea berrian, 2x25 KVA-ko korronte alternoko elikadura-sistema duena eta gehienez 350 kilometro orduko abiaduretarako egokia dena, eta CA-200H/3kV mota katenaria jarriko da zabalera iberiarreko edo mistoko tarteetan, 3.000 V-ko korronte zuzeneko sistemak elikatuta, baina 25 kV-ko korronte alternoko elikadurara transformatzeko aukera ematen duten osagaiek osatuta (katenaria hibridoa), eta gehienez 200 kilometro orduko abiaduretarako egokia dena.

Zabalera estandarreko linea berrirako, autotransformazio-zentro bat egitea aurreikusten da Iruñeko geltoki berriaren inguruan; zabalera iberiarreko linearako, berriz, trakzio-azpiestazio berri bat eraikitzea proposatzen da, gaur egun Zizur Nagusiko geltokian dagoenaren ordez.

Segurtasuneko eta tren-komunikazioetako instalazioak

Zabalera estandarreko linea berrirako, sistema nagusi gisa 2. mailako (350 kilometro ordu arte) eta 1. mailako (300 kilometro ordu arte) ERTMS teknologian oinarritutako sistema eta, bigarren mailako sistema gisa, seinaleztapenaren eta balaztatze automatikorako iragarpen digital (200 kilometro ordu arte) teknologia ezartzea aurreikusten da. Katigamendu elektronikoa izango du Iruñeko geltoki berrian, eta blokeo automatiko banalizatua TKZ kontrola duen ibilbidean.

Egungo linearen saihesbideetan, adarretan edo zabalera iberiarreko edo mistoko tarteetan, seinaleztapenaren eta balaztatze automatikorako iragarpen digital (200 kilometro ordu arte) teknologian oinarritutako sistema konbentzionala ezartzea aurreikusten da. Katigamendu elektronikoa izango du Iruñeko geltoki berrian, eta blokeo automatikoa trenbide bakarrean TKZ kontrola duen ibilbidean.

Iruñeko geltoki berria

Ikerlan honen xede den abiadura handiko linea berrirako herritarren sarbidea konpontzeko, linea horren gainean kokatuko den tren-geltoki berri bat egitea proposatzen da. Geltoki berri horrek Sanduzelai auzoan kokatutako egungo lineari dagokion geltokia ere hartu behar du bere baitan, hiriko “tren-bihurgune” deritzona kendu ondoren.

Beraz, geltokiak abiadura handiko korridoreko trenei eta Sanduzelaiko geltokian gelditzen diren linea konbentzionaleko trenei emango die zerbitzua.

Geltokiko trenbide-lautadaren konfigurazioa honela banatuko da:

- Zabalera estandarreko trenbideak:
  - Bi trenbide orokor, 400 metroko luzera eta 10 metroko zabalera izango dituen nasa nagusirako sarbidearekin.
  - Bi bazterbide, 400 metroko luzera eta 10 metroko zabalera izango dituen nasa nagusirako sarbidearekin.
  - Maniobra-bide osagarriak eta maniobretarako trenbideak.
- Zabalera iberiarreko (edo mistoko) trenbideak:
  - Trenbide orokor bat, 200 metroko luzera izango duen nasa nagusirako sarbidearekin.
  - Bazterbide bat, 200 metroko luzera eta 8 metroko zabalera izango dituen nasa nagusirako sarbidearekin.
  - Inguratzeko trenbide bat, merkantzien bypasserako eta Landaben edo Noain industrialdetara sartzeko maniobretarako.
  - Maniobra-bide osagarriak edo trakzio tren-makinak aparkatzeko trenbideak.

Geltoki berriaren kokapenari dagokionez, “Iruñeko abiadura handiko tren geltoki berriko gunea eta tren geltoki zaharreko gunea garatzeko Udalaz Gainezko Eragineko Plan Sektoriala” (UGEPS) delakoan aurreikusitakoaren araberakoa da. Plan horretan, zerrenda gordeko da Iruñeko udalerriaren hegoaldeko muturrean, Zizurreko mugan, eta A-15 autobiaren ibilbidearekiko paraleloa izango dena.

Bidaiarientzako eraikin berri bat proposatzen da, eraikitako 10.000 m^2 ingurukoa, hiru paralelepipedoko maklak osatuta eta trenbideen noranzkoari (ekialdea-mendebaldea) jarraituko diona. Hiru bolumenen arteko loturak beheko solairua eta lehenengo solairua osatuko lituzke.



6. irudia. Iruñeko abiadura handiko geltoki berrirako proposatutako konponbidearen ikuspegi orokorra.

Erakin berria hiru solairutan banatuko da: sotoa (– 6,00 m. maila), beheko solairua (±0,00 maila) eta lehenengo solairua terrazarekin (+4,82 maila / 5,90 maila).

- BEHEKO SOLAIRUA. ±0,00 maila, itxura angeluzuzen nabarmenarekin eta 3.099 m^2-ko eraikitako azalerarekin. Batez ere atari nagusira, merkataritza-guneetara, txartelen salmentara eta abarrera zuzenduko da. Kanpoko hiru sarbide izango ditu: bi bidaiarientzat, ekialdeko eta mendebaldeko fatxadetan, eta beste bat merkantziak kargatzeko eta deskargatzeko, iparraldeko fatxadan.
- LEHENENGO SOLAIRUA ETA TERRAZA.+4,82 maila eta 5,90 maila, hurrenez hurren, itxura angeluzuzenarekin eta 1.597 m^2-ko eraikitako azalerarekin. Bulegoetara eta sukaldaritzako guneetara zuzenduko da nagusiki.
- SOTOA. -6,00 maila, itxura angeluzuzenarekin, “L” etzandako itxurarekin hegoalde-iparralde noranzkoan eta 5.124 m^2-ko eraikitako azalerarekin. Horretan aurretik treneratzeko guneak, nasetarako sarbidea kontrolatzeko guneak eta bidaiariek itxaroteko guneak egongo dira.

-14,00 kotan, nasen gunea egongo da. Sotoko solairutik sartuko da, komunikazio bertikaleko nukleoen bidez; bi eskailera mekaniko (igotzeko eta jaisteko), eskailera finko bat eta igogailu bat izango dituzte. Aukeran, aldapa mekanikoak jar daitezke bi muturretan.



7. irudia. Zeharkako ebaketa atzealdeko bidetik, egungo lurraren maila bereiziz.

Jarduketa osatzeko, Arostegi etorbidetik geltokira sartzeko bideak eraiki eta eraikin nagusiaren ondoko kanpoko guneak urbanizatuko dira. Guztira 19.000 m^2 inguru izango dira.

Beste jarduketa batzuk

Proposatutako jarduketak osatzeko, zortasunak (bideak, bideen sarea) eta eragindako zerbitzuak berrituko dira.

2.7.- BALIOESPEN EKONOMIKOA

Aukera guztien aurretiazko balorazio ekonomikoa egin da, honako emaitza hauekin:

	BALIOESPENAK (MILIOI EUROTAN)					
	2A AUKERA	2B AUKERA	2C AUKERA	AUKERA 3A	3B AUKERA	3C AUKERA
GAUZATZE ZUZENERAKO AURREKONTUA	325,49 M€	376,59 M€	327,10 M€	290,88 M€	340,05 M€	294,89 M€
LEHIAKETARAKO OINARRIZKO AURREKONTUA BEZarik gabe	387,34 M€	448,15 M€	389,25 M€	346,14 M€	404,66 M€	350,90 M€
LEHIAKETARAKO OINARRIZKO AURREKONTUA BEZarekin	468,68 M€	542,26 M€	470,99 M€	418,83 M€	489,64 M€	424,60 M€
ADMINISTRAZIOAK EZAGUTZEKO AURREKONTUA	504,93 M€	585,75 M€	507,44 M€	451,90 M€	528,59 M€	457,71 M€

4. taula - Aukeren balioespen ekonomikoaren laburpena

Jarraian dagoen taulan balorazioen banakapena zehazten da, kapituluka.

		2A AUKERA	2B AUKERA	2C AUKERA	3A AUKERA	3B AUKERA	3C AUKERA
1. KAPITULUA	LURRAK MUGITZEA	52.959.632,67 €	61.655.958,06 €	54.208.604,04 €	40.645.194,68 €	50.190.451,32 €	42.343.010,59 €
2. KAPITULUA	DRAINATZEA	5.001.281,66 €	5.230.273,24 €	5.608.460,73 €	5.354.559,55 €	5.550.663,26 €	5.411.457,24 €
3. KAPITULUA	EGITURAK	47.524.510,89 €	66.369.600,81 €	47.524.510,89 €	56.243.008,79 €	74.863.339,51 €	56.243.008,79 €
4. KAPITULUA	TUNELAK	36.878.314,40 €	36.878.314,40 €	36.878.314,40 €	16.624.833,55 €	16.624.833,55 €	16.624.833,55 €
5. KAPITULUA	TRENBIDE-GAINEGITURA	92.302.378,25 €	105.251.402,10 €	91.802.365,39 €	89.261.973,98 €	100.906.625,64 €	90.973.649,89 €
6. KAPITULUA	PREBENTZIOZKO ETA ZUZENKETAKO JARDUKETAK	4.250.400,00 €	5.060.000,00 €	4.301.000,00 €	3.668.600,00 €	4.420.000,00 €	3.712.800,00 €
7. KAPITULUA	IRUÑEKO GELTOKIA	29.844.421,56 €	29.844.421,56 €	29.844.421,56 €	29.844.421,56 €	29.844.421,56 €	29.844.421,56 €
8. KAPITULUA	ZORTASUNAK BERRITZEA	4.125.000,00 €	6.750.000,00 €	4.125.000,00 €	4.125.000,00 €	6.000.000,00 €	4.125.000,00 €
9. KAPITULUA	LAN OSAGARRIAK	3.775.581,67 €	4.135.936,33 €	3.798.066,47 €	3.366.039,03 €	3.700.450,76 €	3.391.729,53 €
10. KAPITULUA	BEHIN-BEHINEKO EGOERAK	3.042.500,00 €	3.515.000,00 €	3.042.500,00 €	1.542.500,00 €	1.880.000,00 €	1.542.500,00 €
11. KAPITULUA	ERAGINDAKO ZERBITZUAK BERRIZ JARTZEA	6.807.067,35 €	6.807.067,35 €	6.807.067,35 €	5.276.651,24 €	5.276.651,24 €	5.276.651,24 €
12. KAPITULUA	HONDAKINEN KUDEAKETA (AURREKO KAPITULUEN % 2A)	5.730.221,77 €	6.629.959,48 €	5.758.806,22 €	5.119.055,65 €	5.985.148,74 €	5.189.781,25 €
